

Bilbao — Donostia-San Sebastián — Vitoria-Gasteiz — Pamplona-Iruña — Maizatzak **26** mayo — 20:00 h. — Concierto nº 2486 kontzertua



EUSKADIKO
ORKESTRA

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA

Gaurko kontzertua

El concierto de hoy

ITALIA VIENAN. Mozarten garaikidea zen Cimarosa-k bere operari ospetsuena estrenatu zuen Vienan, 1792an: *Ezkontza sekretua*, Leopoldo II.aren –Cimarosa erregearen kapera-maisua zen– enkarguz egina. Handik gutxira, Beethovenek *Prometeoren izakiak* baleta alegítara eman zuen. Ezaggarri berritzaleak dituen balet alegórico horren kontradanza loriagarriak –heroi grekoak irudikatzen duen askatasunaren gaiaaren irudikapena– “Heroiko” obraren amaiera elikatuko du. Schubertek 1815ean *Hirugarren Sinfonia* idatzi zuenean, Rossini, berehala Vienako publikoaren musikari kutuna izango zena, Vienan *L'inganno felice* obra aurkeztuta debutua egitear zegoen. Bere estilo argitsu eta hegoaldekoaren kutsua agerian geratzen da Schuberten partituraen amaieran.

ITALIA EN VIENA. Contemporáneo de Mozart, Cimarosa estrenaba en Viena, en 1792 y por encargo de Leopoldo II, de quien era maestro de capilla, *El matrimonio secreto*, su ópera más célebre. Poco después, Beethoven daba a conocer *Las criaturas de Prometeo*, ballet alegórico de rasgos innovadores cuya gloriosa contradanza –encarnación del tema de la libertad encarnado por el héroe griego– nutrirá el final de la “Heroica”. Cuando en 1815 Schubert escribe su *Tercera Sinfonía*, Rossini, que muy pronto será el músico favorito del público vienes, está a punto de debutar en la capital imperial con *L'inganno felice*. El sello de su estilo luminoso y meridional queda patente en el chispeante final de la partitura schubertiana.

Hemen jarrai ahal izango
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al Euskor digital en

www.euskadiokoorkestra.es

webgunean izena eman
Euskor digitalean

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana

Egitaraua / Programa

Ludwig Van Beethoven (1770-1827)

Las criaturas de Prometeo (Geschöpfe des Prometheus), opus 43
Obertura [5']
nº12. Maestoso [3']*
nº16. Finale [6']*

Domenico Cimarosa (1749-1801)

Concierto para flauta, oboe y orquesta en sol mayor [18']

- I. Allegro
- II. Largo
- III. Rondo: Allegretto ma non tanto

Franz Schubert (1797-1828)

Sinfonía nº3 en re mayor, D 200 [23']

- I. Adagio maestoso
- II. Allegretto
- III. Menuetto
- IV. Presto vivace

*Lehen aldiz interpretaturiko obra / Obra interpretada por primera vez

Waldemar Machmar, kontzertinoa / concertino

Howard Griffiths, zuzendaria / director

Bruno Claverie, flauta (*EOSeko kidea*) / flauta (*miembro OSE*)

Pascal Laffont, oboea (*EOSeko kidea*) / oboe (*miembro OSE*)

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Egitarauari Oharrak

Notas al Programa

Las criaturas de Prometeo, opus 43 (Obertura, Maestoso, Finale)

Ludwig Van Beethoven - Bonn, 16 de diciembre de 1770 – Viena, 26 de marzo de 1827

Prometeoren izakiak bi ekitaldiko balet heroiko-alegorikoa izan zen Beethovenen partitura zabal honen inspirazio iturria –genero honetan musikariak konposatutako lehena 1791ko *Ritterballet-en* (*Balet adeitsua*) ondoren– obertura bat, sarrera bat eta hamasei zenbakiz biltzen zituen. 1801eko martxoaren 28an estrenatu zen arrakasta handiz Vienako Burgtheater antzokian (hamasei emanaldi eskaini ziren elkarren segidan). Obra honekin aurkeztu ziren hiriburu imperialean garaiko koreografo gailenena, Salvatore Viganò, eta haren emaztea, María Medina dantzari madrileña. Baletaren argumentuak honela erakusten zuen Prometeoren irudi klasikoa: espíritu gorena, gizadia bere jatorrizko ezjakintasunean aurkitu eta zientzien eta arteen bidez bere ohiturak findu zituena lege unibertsalak eskainiz. Bigarren ekitaldian, Prometeo Parnasora bideratzen ditu bere izakiak –buztinezko bi estatua bizidun– Apoloren eta bere musen aurrean. Festa giroko dantzen erdian, obraren *Finaleak* haien hasierako “ezjakintasun egoeratik” askatu izana ospatzenten du. Amaierako eszena honetarako, Beethovenen musikak, rondo baten gai nagusitzat azaltzen du ziurrenez pixka bat lehenago idatzi izandako *Hamabi kontradanza orkestrako WoO 14*etatik zazpigarrena. Kontradanza horrek berak, erraz antzemateko moduko melodiarekin eta baletaren apoteosisian duen jarrera nabarmenagatik Prometeori lotutako askatasun gaiaren mailara iristen dena, izango da musikariari balio izango ziona 1802an pianorako *Bariazioak eta fuga*

El ballet heroico-alegórico en dos actos *Las criaturas de Prometeo* inspiró a Beethoven una extensa partitura –la primera del músico en este género tras su juvenil *Ritterballet* (*Ballet caballeresco*) de 1791– que comprendía unaertura, una introducción y dieciséis números. Estrenada en el Burgtheater de Viena el 28 de marzo de 1801 con gran éxito (se ofrecieron dieciséis representaciones consecutivas), la obra supuso la presentación en la capital imperial del más destacado coreógrafo de la época, Salvatore Viganò, y de su esposa, la bailarina madrileña María Medina. El argumento del ballet presentaba a la figura clásica de Prometeo como un espíritu sublime que, habiendo encontrado a la humanidad en un estado de ignorancia primigenia, refinó sus costumbres mediante las ciencias y las artes ofreciéndole leyes universales. En el segundo acto, Prometeo conduce a sus criaturas –dos estatuas de barro animadas– al Parnaso, ante Apolo y las musas. En medio de danzas festivas, el *Finale* de la obra celebra su feliz liberación del “estado de ignorancia” inicial. Para esta escena conclusiva, la música de Beethoven expone como motivo principal de un rondó la séptima de las *Doce Contradanzas para orquesta Woo 14*, probablemente escritas poco antes. Esta misma contradanza, de melodía fácilmente reconocible y que por su significativa posición en la apoteosis del ballet, adquiere el rango de tema prometeico de la libertad, es la que servirá al músico en 1802 como base para sus pianísticas *Varia-*



op. 35 konposatzeko (Bariaazioak “Heroika” izenez ere ezagutzen direnak).

Urte hartako udan, Beethovenek bere *Sinfonia 3. zk. mi bemol mayorrean* konposatzeari ekin zion eta, hasieratik, “iruditu zitzaion –Stährrek dioenez– sinfonia horren hasierak ere Prometeoren gaiaren ingurukoa behar zuela izan”. Partitura 1806an inprimatu zeanan, honela zioen azalak: “Sinfonia heroikoa, gizon handi baten oroitzapena ospatzeko konposatura”. Heroi horren, gizon handi horren nortasuna *Heroikoaren* amaieraren jatorria bilatuz interpretatu daiteke, Viganòrentzat hilabete batzuk aurretik idatzitako baletaren musikan. Hortaz, Beethovenek bariaizo monumental horietan agerian utzi nahi du Prometeoren oroitzapena eta hark adierazten duena: artistaren nortasuna, duen jakintza handiaren bitartez emantzipazioa eta, artearen bidez, askatasuna ospatzen dituena.

Lento-vivo (*Adagio-Allegro molto con brio*) bi ataleko egiturakoa, Bonneko musikariak aurrena idatzitako *Prometeoren izakiak* obraren *Obertura*, geroago idatzi zituen *Coriolano* eta *Egmont* obretakoak bezala, oso bestelakoa da partituren gainerako guztitik, gertuko lehenaldiari asko zor baitio estilistikoki. Hasiera batean *Ekaitza* izena emandako honen egiteko modu akademizistikak ez du oztopatuko Beethovenengan jadanik ezaugarri berezi bihurtutako indarrak garraiori hori. 12. zk. duen pasartea, *Maestoso (A solo di Gioia)*, nabarmendu egiten da tinbalek eta tronpetek azpimarratutako hasierako militar kutsu sendoagatik. Flauta solo liriko batek, zur eta hari instrumentuek punteatutakoak, eta bizitasun handiagoko pasarte batek jarraitzen dionak, oso kontraste egokia eskaintzen du.

ciones y fuga op. 35, conocidas también como Variaciones “Heroica”.

En el verano de ese mismo año Beethoven esbozaba la composición de su *Sinfonía nº 3 en mi bemol mayor* y, desde el principio, “le pareció evidente –como señala Stähr– que el final de esta sinfonía debía igualmente descansar sobre el tema de Prometeo”. Cuando la partitura fue impresa en 1806, su frontispicio la describía como una “Sinfonía heroica, compuesta para celebrar el recuerdo de un gran hombre”. Puede interpretarse la identidad de ese héroe, de ese gran hombre, buscando el origen del final de la *Heroica* en la música de ballet escrita pocos meses antes para Viganò. Lo que Beethoven invoca en esas monumentales variaciones contrapuntísticas sería, por tanto, el recuerdo de Prometeo y lo que éste significa: la personalidad del artista que, a través de su erudición, brinda la emancipación y, con el arte, la libertad.

De estructura bipartita lento-vivo (*Adagio-Allegro molto con brio*) como lo serán las futuras de *Coriolano* y *Egmont*, la *Obertura de Las criaturas de Prometeo*, la primera firmada por el músico de Bonn, está muy alejada del resto de la partitura en su clara deuda estilística con el pasado reciente. Denominada en un principio *Tempestad*, el academicismo de sus hechuras no impide que su arrebatadora energía encierre ya rasgos genuinamente beethovenianos. El episodio nº 12, *Maestoso (A solo di Gioia)*, destaca por sus rotundos acentos marciales iniciales, subrayados por timbales y trompetas. Un lírico solo de flauta, punteado por maderas y cuerdas, al que sucede un episodio más animado, ofrece el oportuno contraste.



Concierto para flauta, oboe y orquesta en sol mayor

Domenico Cimarosa - Aversa, Nápoles, 17 de diciembre de 1749 – Venecia, 11 de enero de 1801

1792ko otsailaren 7an, Vienako Burgtheater antzokian ere bai, *Il matrimonio segreto*, “dramma giocoso” estrenatu zen bi ekitalditan, autorea, Domenico Cimarosa italiarra, Aversan jaioa baina Napolin hazia, bizitza osorako ospetsu bihurtu zuena. Litekeena da bi hilabete aurretik besterik ez hil zen Mozarten espirituora aindik ere aretoan sumatzea hain arrakasta handiko estreinaldi haren egunean: Dorothea Bussani eta Francesco Benucci, Robinson eta Fidalma, Cimarosaren maisulanaren aurreneko funtzoian interprete izandakoak, urte batzuk aurretik nabarmendu izan ziren Salzburgoko konpositorearen interprete gailenak izan zirelako: kontraltoa Cherubino eta Despina paperetan eta baxua, Fígaro, Leporello eta Guglielmo dagozkien horietan. Horixe bera gertatu zen Giovanni Bertati libretistarekin, “beste” *Don Giovanni* autorearekin, Giuseppe Gazzaniga (1743-1818) veroniarra, 1787an Venezian estrenatua eta hilabete gutxi batzuen ondoren Da Ponte eta Mozart inspiratuko zituen.

XVIII. mendearen azkeneko laurdenean Cimarosak operako eszenatokietan izan zuen arrakastak Italian, San Petersburgo eta Vienan –hurrenez hurren lan egin izan zuen hiriburuak Katalina II.a tsarinarentzat eta Leopoldo II.a enperadorearentzat– barkamenik gabe itzali du bere katalogo instrumentalak, askoz ere urriagoa baina interes handikoa. Fortepianorako laurogeita lau sonata laburrez gain, Cimarosak bi sesteto konposatu zituen fortepianorekin, ziurrenez San Petersburgo idatziak, sei koarteto oboe, flauta, violín, viola eta biolontxelorako eta bi kontzertz, bata klaberako eta bestea zeharkako bi flautarako –gaur entzungo duguna–, sarri asko flauta eta oboerako bertsioan interpretatutakoa. Jakina denez, transkripzioak lagundu egiten du bi bakarlarrien arteko elkarriketak aberasten eta tinbreari dagokionez aniztasuna ematen.

Kontzertua sol maiorrean 1793an idatzi zuen Cimarosak, Napolira itzuli zen urtean, “Napoliko gortean BM Imperialaren ohore handiko enbaxadore” S. E. Esterházyren ganbera orkestrarako. Argitara ateratakoren aurreneko obra instrumentalak zen –Simrockek egin zuen

El 7 de febrero de 1792 se estrenaba también en el Burgtheater de Viena *Il matrimonio segreto*, “dramma giocoso” en dos actos que habría de consagrar de por vida a su autor, el italiano nacido en Aversa pero criado en Nápoles Domenico Cimarosa. Es probable que el espíritu de Mozart, fallecido sólo dos meses antes, flotara aún en la sala el día de aquel estreno triunfal: Dorothea Bussani y Francesco Benucci, Robinson y Fidalma en la primera función de la obra maestra cimarsiana, habían destacado años antes como grandes intérpretes del salzburghés: la contralto en los papeles de Cherubino y Despina y el bajo como Fígaro, Leporello y Guglielmo. Otro tanto sucedía con el libretista Giovanni Bertati, autor del “otro” *Don Giovanni*, el del veronés Giuseppe Gazzaniga (1743-1818), estrenado en Venecia en 1787 y que inspiraría pocos meses después a Da Ponte y a Mozart.

La celebridad de Cimarosa durante el último cuarto del siglo XVIII en los escenarios operísticos de toda Italia, San Petersburgo y Viena –capitales en las que trabajó, respectivamente, para la zarina Catalina II y el emperador Leopoldo II– ha ocultado sin remisión su catálogo instrumental, mucho menos voluminoso pero no exento de interés. Además de ochenta y cuatro sonatas breves para fortepiano, Cimarosa compuso dos sextetos con fortepiano, escritos probablemente en San Petersburgo, seis cuartetos para oboe o flauta, violín, viola y violonchelo y dos conciertos: uno para clave y otro para dos flautas traversas –el que hoy escuchamos– interpretado con frecuencia en su versión para flauta y oboe. Transcripción que, es obvio, contribuye a enriquecer y otorgar variedad tímbrica a los diálogos establecidos entre ambos solistas.

El Concierto en sol mayor fue redactado por Cimarosa en 1793, el año de su regreso a Nápoles, con destino a la orquesta de cámara de S. E. Esterházy, “muy honorable embajador de S. M. Imperial en la corte de Nápoles”. El hecho de que fuera su primera obra instrumental publicada –lo hizo Simrock en Bonn, en 1803, dos

Bonnen, 1803an, hil baino bi urte lehenagoeta horregatik da klaberako komposatu zuen parekoa baino ezagunagoa, zalantzak gabe. Obra osoari daron Mozarten grazia hori hasierako *Allegro* luzearen aurreneko konpasetatik nabari da, bakarlarien lerro melodikoak elkarrekin batera doazelarik edo elkarri laguntzen diotelarik elkarritzeta labur bezain jorietan. Eskema klasikoak errespetatuz, kadentzia txiki bat agertzen da amaieraren aurretik. Erdiko *Largo* giro liriko eta bare batean garatzen da, bakarlarien interbentzioen individualtasunaren alde. La etenik gabe amaierako *Allegretto ma non tanto* dator, antzeko iraupena duena. Rondo modura, duen doinu ausartak eta pozez beteak dantza herrikoiak gogorarazten dizkigu.

Zalantzak ez dago Cimarosaren *Kontzertua sol maiorrean* obraren idazkera aise eta dotoreak, ahotsik ez badu ere, funtsean opera izaera duela. Lamoreauxentzat, “kontzertu hau opera bat balitz, lehenengo mugimendua komunitate baten artean irudikatuko lituzke gizonezko eta emakumezko heroia, gatazkak sortuz eta konponduz; bigarren mugimendua maitasunezko eszena bat izango litzateke eta amaiera ezkonta dantza oparo bat”.

años después de su muerte– le ha procurado sin duda una mayor popularidad que a su casi desconocido hermano para clave. La gracia mozartiana que inunda toda la obra aflora desde los primeros compases del amplio *Allegro* inicial, en el que las líneas melódicas de los solistas discurren juntas o se interpelan en breves pero jugosos diálogos. Respetando los esquemas clásicos, una pequeña cadencia precede a la conclusión. El *Largo* central se desarrolla en una atmósfera lírica y sosegada que favorece la individualidad de las intervenciones solistas. Sin apenas pausa se sucede el *Allegretto ma non tanto* conclusivo, de extensión similar. En forma de rondó, su tono desenfadado y jubiloso incorpora ecos de danza popular.

Indudablemente, la escritura fluida y elegante del *Concierto en sol mayor* de Cimarosa revela, pese a la obvia ausencia de voces, su evidente substancia operística. Para Lamoreaux, “si este concierto fuera una ópera, su primer movimiento representaría al héroe y a la heroína desenvolviéndose entre una comunidad, planteando conflictos y resolviéndolos; el segundo movimiento sería una escena de amor y el final una exuberante danza nupcial”.

2.

Sinfonía nº 3 en re mayor, D 200

Franz Schubert - Viena, 31 de enero de 1797 – Viena, 19 de noviembre de 1828

Franz Schubertk urtean behin elkarren segidan, 1813 eta 1816 artean, idatzi zituen aurreneko lau sinfoniak. *Sinfonia 3. zk. re maiorrean* obraren konposizioa, zehazki lehenengo mugimendua, 1815eko maiatzaren 24an hasi zuen, bere *Bigarren sinfonía* bukatu baino bi hilabete geroago eta *Singspiel Die vierjährige Posten* (*Lau urte guardia postuan*) dibertigarria idatzi ondoren. Antzeko beste orri eszeniko batek, *Fernandok*, eten egin zuen obra sinfonikoaren sorkuntza, Schubertek uztailaren hasieran berriro heldu zion arte berehala hilabete hartako 19an amaitzeko.

Con escrupulosa regularidad anual, las cuatro primeras sinfonías escritas por Franz Schubert se escalonan entre 1813 y 1816. La composición de la *Sinfonia nº 3 en re mayor*, en concreto su primer movimiento, se inicia el 24 de mayo de 1815, exactamente dos meses después de haber acabado su *Segunda Sinfonía* y tras la redacción del divertido *Singspiel Die vierjährige Posten* (*Cuatro años en el puesto de guardia*). Otra página escénica similar, *Fernando*, interrumpe la gestación de la obra sinfónica que Schubert retoma a principios de julio y concluye rápidamente el 19 de ese mismo mes.

Bere bi kideko nagusiak bezala, *Hirugarrena* –haien baino laburragoa eta sailari hasiera eman zion sinfonien tonalitate berarekin idatzia–, sarrera geldo batekin hasten da, *Adagio maestoso*, zur instrumentuen arteko elkarrizketa joria, Mozarten antzera eta Beethovenen *Bigarrenaren* handitasun kutsu hori dariona. Ondoren datorren *Allegro con brio* argitsu eta arinean, berriro ere galderantzunen bizitasun handiko jokoak dira nagusi klarineteak eta oboeak protagonizatuko haize instrumentuen artean. Einsteinek “Haydn simplifikatua” zela zioen *Allegretto*ari, ohiko aldi geldoaren ordez bigarren mugimendua hartzen duenari, Schuberten ezauigarri bereizgarria sumatzen zaio, nabarmen gainera. Hasierako melodiaren fintasunak, leuntasunak eta lirismoak, hariari dagozkionak, orkestra ehungaren gardentasunak eta klarinetearren parte-hartzeak erdiko atalean, Massinek esan bezala “minueto camuflatu” honetan trio lana egiten duenarenak, argi eta garbi iradokitzen digute Schubertek zortzi urte geroago *Rosamunderako* idatzi zuen musika eszenikoa. *Menuetto* izena eman bazitzaion ere, hirugarren mugimendua *Scherzo* baten antza handiagoa du. Dagokion gai nagusia, sendoa eta bizitasun handikoa, orekatu egiten da trio gisa diharduen *Ländler* horretan, hariak atzealdean direla oboeak eta fagotak jotzen duten kantinela kulunkagarrian. Hasierako *Allegroak* ezaugarri zituen sarkortasun eta alaitasuna azpimarratuta itzultzen dira obrara laugarren mugimenduan: argitasun handiko *Presto vivace* liluragarria, tarantela erritmoan amaierari Schuberten Vienan izugarrizko arrakasta zuen italiar opera bufoaren eremuetatik gertu dagoen distira ematen dion kemen erakargarriarekin.

Konpositorearen bizaldian argitara atera gabe oraindik, *Sinfonia 3. zk. re maiorrean* Londresko Crystal Palace-n estrenatu zuen jendaurrean, 1881eko otsailaren 19an, August Friedrich Mannsek. 1860an, Johann Herbeck *Hofkapellmeister* vienarrak, konpositorea izugarri miresten zuenak, obraren azkeneko mugimendua interpretatu zuen Musikaren Lagunen Vienako Elkartearren kontzertu batean, Schuberten beste sinfonía batzuetako hiru mugimenduren aurretik.

Como sus dos hermanas mayores, la *Tercera* –algo más concisa que aquéllas y escrita en la misma tonalidad de la sinfonía que inaugura la serie–, se inicia con una introducción lenta, marcada *Adagio maestoso*, rica en diálogos de las maderas y cuya solemnidad encierra indudables ecos mozartianos y del Beethoven de la *Segunda*. En el *Allegro con brio* subsiguiente, luminoso y fluido, dominan de nuevo los animados juegos de preguntas y respuestas entre instrumentos de viento protagonizados por clarinete y oboe. Definido por Einstein como “Haydn simplificado”, el *Allegretto* que, en lugar del tradicional tiempo lento, ocupa el segundo movimiento *suena ya* inconfundiblemente schubertiano. La delicadeza, tersura y lirismo de su melodía inicial, confiada a la cuerda, la transparencia del tejido orquestal y las intervenciones del clarinete en su sección central, que hace las veces de trío en este “minueto camuflado” como lo denomina Massin, evocan irremediablemente la música escénica que para *Rosamunde* escribiría Schubert ocho años más tarde. Aunque nominado como *Menuetto*, el tercer movimiento se asemeja más a un *Scherzo*. Su tema principal, rotundo y vigoroso, encuentra un adecuado contrapeso en el *Ländler* que oficia como trío, una balanceante cantilena confiada al oboe y al fagot sobre el fondo de las cuerdas. La incisividad y alegría que caracterizaban al *Allegro* inicial regresan a la obra, enfatizadas, en el cuarto movimiento, un luminoso y arrebatador *Presto vivace* cuya energía irresistible a ritmo de tarantela aporta a la conclusión un brillo cercano a los terrenos de la ópera bufa italiana, de extraordinaria popularidad en la Viena de Schubert.

Inédita en vida del compositor, la *Sinfonía n° 3 en re mayor* fue estrenada públicamente en el Crystal Palace de Londres, el 19 de febrero de 1881, por August Friedrich Manns. En 1860 el *Hofkapellmeister* vienes Johann Herbeck, gran admirador del compositor, interpretó el último movimiento de la obra en un concierto de la Sociedad Vienesa de Amigos de la Música, curiosamente precedido de tres movimientos procedentes de otras tantas sinfonías schubertianas.



Musika argudio

La música como pretexto

F. Schubert “Mundu guztiak ulertzen dio orain Mozarti; inork ez dio, ordea, Beethoveni ondo ulertzen. Horretarako arima handia eta oraindik bihotz handiagoa behar izango da. / Todo el mundo comprende ya a Mozart; nadie comprende bien a Beethoven. Para esto habrá que tener mucho espíritu y todavía más corazón. ”

L. Rebattet “Cimarosak eta Paisielok hain garaikide Mozarten bizilagun izatearen zoritxar historiko dute guretzat, kontuan izanik haren operak Cimarosak ondo ezagutu zituela Vienan. / Cimarosa y Paisiello encierran para nosotros la desventura histórica de haber sido vecinos cercanos de su contemporáneo Mozart, cuyas óperas Cimarosa conoció indudablemente en Viena. ”

M. Brown “Schuberten izaera sakona, epikoa eta tragikoa zen, Vienan ezohikoa erabat, bertako pasibotasuna eta uztasuna zeharo ezezagunak izanik harentzat. / La naturaleza de Schubert era profunda, épica y trágica, en absoluto característica de Viena, cuya pasividad y abandono eran profundamente desconocidos para él. ”

Gure iradokizun diskografikoa

Nuestra sugerencia discográfica

L.V. Beethoven:

Las criaturas de Prometeo

Orquesta de Cámara de Europa
Zuz./Dir.: Nikolaus Harnoncourt
Teldec, 1993.

D. Cimarosa:

Concierto para flauta y oboe

Mathieu Dufour, flauta/flauta
Alex Klein, oboea/oboe
Orquesta Sinfónica Nacional Checa
Zuz./Dir.: Paul Freeman
Cedille, 2003.

F. Schubert:

Sinfonía nº 3

Orquesta Filarmónica de Viena
Zuz./Dir.: Carlos Kleiber
DG, 1978.

Howard Griffiths

zuzendaria
director



Ingalaterran jaio zen eta Londresko Royal College of Music-en ikasi zuen. 1981ean Suitzara joan zen bizitzera. Zuzendari gonbidatu gisa, izen handiko orkestrekin lan egin izan du: Royal Philharmonic, Zuricheko Tonhalle, Basileako Sinfonikoa, Frantzisko Nazionala, Israelgo Filarmonikoa, Age of the Enlightenment eta Alemaniako NDR, SWR eta WDR. 1994 eta 1997 urte bitartean Oxfordeko Ganbera Orkestraren zuzendari gonbidatu nagusi izan zen. 1996tik 2006ra Zuricheko Ganbera Orkestraren zuzendari artistiko izan zen, eta orkestra horrekin bost kontinentetatik egin zituen birak. 2006ko martxoan Artean Domina jaso zuen Ingalaterrako Isabel II.a erreginaren eskutik. 60 CD baino gehiago grabatu ditu etxe hauentzat: CPO, Koch, Naxos, Philips, Teldec, Sony eta Novalis. Orpheum Fundazioaren zuzendari artistikoa da, bakarlarri gazteak biltzatzen diharduenarena. Orain, Brandenburgisches Staatsorchester Frankfurt-eko eta Camerata Schweiz-eko Musika Zuzendaria eta Zuzendari Artistikoa da.

Nació en Inglaterra y estudió en el Royal College of Music de Londres. En 1981 se estableció en Suiza. Como director invitado ha estado al frente de importantes formaciones: Royal Philharmonic, Tonhalle de Zúrich, Sinfónica de Basilea, Nacional de Francia, Filarmónica de Israel, Age of the Enlightenment y las alemanas NDR, SWR y WDR. De 1994 a 1997 fue principal director invitado de la Orquesta de Cámara de Oxford. Entre 1996 y 2006 fue director artístico de la Orquesta de Cámara de Zúrich, con la que realizó giras por los cinco continentes. En marzo de 2006 recibió la Medalla de las Artes de mano de la Reina Isabel II de Inglaterra. Ha grabado más de 60 CDs para los sellos CPO, Koch, Naxos, Philips, Teldec, Sony y Novalis. Es director artístico de la Fundación Orpheum destinada a la promoción de jóvenes solistas. En la actualidad es Director Musical y Artístico de la Brandenburgisches Staatsorchester Frankfurt y de la Camerata Schweiz.

Paun (Francia) jaio zen 1966an. Bayonne-Côte Basque Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak, eta bertan aho batez lortu zituen Flautako Urrezko Domina, Ganbera Musikako Urrezko Domina eta Flautako Ohorezko Saria. 1986an lehenengo zenbakirekin sartu zen Parisko Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean, Michel Debost eta Christian Larde irakasleen klaseetan. Bertan, hiru urte geroago, Lehenengo Flauta Saria eta Ganbera Musikako Lehenengo Saria lortu zituen, biak aho batez. Parisen egin zuen egonaldian musika pedagogiako ikasketak egin zituen Pierre-Yves Artaudetik.

Orkestra eta ganbera musikako talde ugarirekin egin izan ditu emanaldiak Europan, Amerikan eta Japonian. Bere azkeneko emanaldien artean nabarmentzekoak dira Tomás Aragüésen "Tria ab uno" flauta eta orkestrarako obraren estreinaldia, eta Mozarten flautarako kontzertuak Sol maiorrean eta Re maiorrean interpretazioak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera. 1989az geroztik Flauta Bakalarioa da Euskadiko Orkestra Sinfonikoan, eta 2002az geroztik "Musikene" Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko irakaslea.

Nace en Pau (Francia) en 1966. Inicia sus estudios musicales en el Conservatorio de Bayonne-Côte Basque, donde obtiene por unanimidad la Medalla de Oro de Flauta, la Medalla de Oro de Música de Cámara y el Premio de Honor de Flauta. En 1986 ingresa con el número uno en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París, en las clases de Michel Debost y Christian Larde, donde tres años más tarde consigue el Primer Premio de Flauta y el Primer Premio de Música de Cámara, ambos por unanimidad. Durante su estancia en París cursa estudios de pedagogía musical con Pierre-Yves Artaud.

Ha actuado con numerosas orquestas y conjuntos de cámara en países de Europa, de América y en Japón. Cabe destacar entre sus últimas actuaciones, el estreno de la obra para flauta y orquesta "Tria ab uno" de Tomás Aragüés, y la interpretación de los conciertos de flauta en Sol mayor y Re mayor de Mozart, acompañado por la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Desde 1989 es Flauta Solista de la Orquesta Sinfónica de Euskadi y Profesor del Centro Superior de Música del País Vasco "Musikene" desde 2002.

1968an Auchen jaioa, 1979an hasi zen musika ikasten Toulouseko Kontserbatorio Nazionalean, Jean Louis Fusis irakaslearekin. 1988an, lehenengo saria lortu zuen Creteilko Kontserbatorioan, eta beste bat St Maurreko Kontserbatorioan 1989an. Aldi berean, Thomas Indermulherekin ikasi zuen "domaine Forget"-en, Kanadan. 1990ean Lyongo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan sartu zen, Jean Christophe Gayot irakasle zuela, eta lehenengo saria lortu zuen bertan 1993an. Urte hartan bertan Maurice Bourguesekin ikasi zuen Pragako "Mozart Academy"-n, ganbera musikako taldeetan. 1994an Euskadiko Orkestra Sinfonikoan sartu zen 2. oboe eta bakarlari gisa. 2006az geroztik adar ingeles instrumentuko irakaslea da Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioa. Orkestraz kango egiten dituen emanaldiak ganbera musikakoak dira gehienbat, OPUS 64 taldearekin eta Ensemble Diatessaron antzinako instrumentu taldearekin.

Nacido en Auch en 1968, empieza sus estudios musicales en el conservatorio nacional de Toulouse en 1979 con el profesor Jean Louis Fusis. En 1988, obtiene un 1º premio en el conservatorio de Creteil, y otro en el conservatorio de St Maur en 1989. Paralelamente, estudia con Thomas Indermulhe en el "domaine Forget" en Canadá. En 1990 ingresa en el Conservatorio Superior de Música de Lyon, en la clase de Jean Christophe Gayot, donde obtiene el 1er premio en 1993. Este mismo año estudia con Maurice Bourgues en la "Mozart Academy" en Praga, en formaciones de cámara. En 1994 ingresa la Orquesta de Euskadi como 2º oboe y corno inglés solista. Desde el año 2006 es profesor de corno inglés en Musikene, conservatorio superior del País Vasco. Sus actuaciones al margen de la orquesta son en su mayoría de música de cámara con el grupo OPUS 64 y con el conjunto de instrumentos antiguos Ensemble Diatessaron.

Bruno Claverie

flauta
flauta



Pascal Laffont

oboea
oboe

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la programación de nuestra Orquesta contácte con nosotros.



943 01 32 32 | www.euskadikoorkestra.es

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Ekainak

16
junio

J. Brahms

Concierto para piano y
orquesta nº2

R. Schumann

Sinfonía nº2

Düsseldorfer Symphoniker

Orkestra gonbidatua
Orquesta invitada

Andrey Boreyko

Zuzendaria / Director

Khatia Buniatishvili

Pianoa / Pianoa

klasikAT

Ekainak

4
junio

SWING GAUA/NOCHE DE SWING

Teatro Principal Antzokia, 20.00h
Sarrerak salgai / Entradas a la venta

Salneurri bakarra
precio único: 15€

Musika Familiar Conciertos en Familia

Ekainak

5
junio

Biolak lagunak badituela

La viola no está sola

Teatro Principal Antzokia, 18:00 h.

(Sensibilizazio tailerra / taller de sensibilización 17.00h)

**Sarreren
salmenta**
**Venta de
entradas**

Teatro PRINCIPAL Antzokia
Taquilla / leihatila. Tel.: 945 16 10 45
Asteartetik larunbatera, 18:30etatik
20:30etara (jaieguneetan izan ezik) eta, funtzio
egunetan, hau hasi baino irudu lehenago.
De martes a sábado, de 18:30h a 20:30h
(excepto festivos) y los días de función tres
horas antes de la hora de inicio.

SerVital Postontzi automatizatuak
Buzones automatizados SerVital
www.cajavital.es

www.euskadikoorkestra.es

REO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO. DESDE 1910. www.elcorreo.com

EL CORREO

actuaciones de la Sociedad de Autores cuestionan la frontera y el sentido común v2

'CELDA 211' SE IMPONE EN LOS GOYA p38

DR
MEDI
HATE
2:4
4 f
[A] (LIGHTS)
mp
3 4
2 8
[D] (TRONBONES)
2 2 2 2
Medium tempo wi
157
(5)

DESDE SIEMPRE CON LA
ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI

EL CORREO

Patrocinador

This image is a collage featuring musical notation and a newspaper clipping from 'El Correo'. The musical notation includes various staves with notes, rests, and dynamic markings like 'f' (fortissimo) and 'mp' (mezzo-forte). One staff has a tempo marking of 'J=164'. The newspaper clipping is from 'El Correo' (Issue 1910) and includes a large headline 'EL CORREO', a photo of a man holding an award, and text about the Goya Awards ('CELDA 211' SE IMPONE EN LOS GOYA p38'). The clipping also mentions 'actuaciones de la Sociedad de Autores cuestionan la frontera y el sentido común v2'. At the bottom, it says 'DESDE SIEMPRE CON LA ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI'.